

## **INBESTIDURA HITZALDIA.**

### **Gasteiz, 2020ko irailaren 3a.**

Legebiltzar buru andrea, legebiltzarkideok; erakunde eta gizartearen arduradun eta ordezkariok, jaun andreok, egunon.

Gaur, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria izendatzeko bilkura izango dugu.

Ezohiko garaiak bizi ditugu.

Martxotik, Covid-19aren ondorioak jasaten ari gara.

Hilabete latzak bizi izan ditugu. Euskadin 1.700 pertsona baino gehiago hil dira.

Erantzukizuna eta elkartasuna izango dira gure gizartearen eta demokraziaren etorkizunerako giltzarriak.

Euskadiko zerbitzu publikoek sekula gertatu ez diren egoerei aurre egin behar izan diete. Profesionalek beren onena eskaini dute; eta, orobat, hala jokatu dute funtsezko zerbitzuak ematen aritu diren, eta ematen ari diren, milaka lagunek.

Ohiz kanpoko garaiak bizitzen ari gara eremu politiko eta instituzionalean ere.

Uztailaren 12an, hauteskundeak bermez egin ahal izan genituen; eta gaur, irailaren 3a, inbestidura-eztabaidaren txanda da.

Ez da polemika antzuetan nahasteko unea, zeren eta horrek arreta galaraziko bailiguke benetan premiazkoa eta garrantzitsua den lanaren aurrean; alegia, pandemiari aurre egitea. Baina hauteskundeak egitea erabaki ona izan zela aldarrikatu nahi dut.

Orain, inoiz baino gehiago, funtsezkoa da erakunde publiko guztiak kontuan hartzea. Haien legegintza- eta betearazpen-funtzio guztiak aktibo izatea, eginkizun nagusi hauen alde egiteko: Covid-19ari aurre egiten jarraitu; pertsona

eta kolektibo ahulenei arreta eman; susperraldi ekonomikoa abiarazi, eta herri honen etorkizun-bideari ekin.

Krisi sanitario, ekonomiko eta sozial honek denei eragiten digu. Era berean hausnartu eta jardun beharko dugu, testuingurua eta ondorioak oso gogorak izango baitira, bai arlo sozialean, bai ekonomikoan.

Erronka horrek akordio zabalak eskatzen ditu, adostasun politiko eta sozial handiak. Horixe da gutako bakoitzarengandik eta herritar guztiengandik espero dudana.

Hala espero dut, eta bide horretan jardungo naiz lehenengo egunetik.

Puntu honetan, Zaldibarren gertatutakoa gogora ekarri nahi dut.

Azpimarratzekoa da talde profesionalak egin duten lana, duela sei hilabete baino gehiago zabortegia amildu zenetik. Egun gogorak eta luzeak izan dira, eta buru-belarri jarraitu dute lanean, lehenetsun batekin: desagertutako bi pertsonak aurkitzea, Alberto Sololuze eta Joaquín Beltran.

Euskal gizarte osoak elkartasunez bizi izan du senideen tragedia eta atsekabea. Lana hasi da emaitzak ematen; eta, gaur, beriz ere, gure elkartasuna eta konpromisoa adierazi nahi dizkiet familieei. Asko sufritu dute luzaroan; hitzen bidez zein isiltasunaren bidez adierazi duten samina sentitu, partekatu eta ulertu dugu.

Hitzeman nien, eta gizarte osoaren aurrean hitzeman nuen, ez genuela amore emango bi desagertuak aurkitu arte. Gaur, hitz hauen bidez, nire gertutasuna adierazi nahi diet. Horrekin batera agintzen diet tragedia honen arrazoiak eta akatsak identifikatuko dituen prozesua aurrera egingo duela eta erantzukizunak eskatuko direla.

Hoy comparezco con el objetivo de obtener el respaldo de esta Cámara para volver a ser Lehendakari de Euskadi.

Comparezco presentando un Programa para dar respuesta a los retos de nuestro País.

Euskadi ha consolidado un modelo de desarrollo humano sostenible.

El desarrollo humano es pilar básico de bienestar y convivencia social.

El crecimiento sostenible es el eje de desarrollo económico.

Contamos con un modelo que funciona. Lo digo sin triunfalismos ni autocomplacencias estériles; porque tenemos mucho que mejorar.

Vamos a seguir trabajando con el conjunto de la sociedad vasca.

Una sociedad que se distingue porque se preocupa y ocupa, especialmente, por la solidaridad y la cohesión social. Más aún, en un momento de crisis tan aguda y profunda como la actual.

Las instituciones nos encontramos nuevamente ante el reto de proteger a las personas, a todas las personas, a través de los servicios públicos y las políticas sociales.

Todas las instituciones tenemos que hacer un especial esfuerzo por reforzar los cauces de coordinación y colaboración. Este va a ser mi primer mensaje para el nuevo Gobierno: máxima coordinación institucional.

La dura crisis que se anuncia tendrá su más dramático exponente en la vertiente social, mostrando las dificultades vitales de personas y familias en situación vulnerable.

Por ello hay que situar en el centro del debate el alcance y extensión de nuestro sistema de protección social, clave para frenar la desigualdad, para cohesionar más y mejor nuestra sociedad.

Sin una mínima base compartida, sin el esfuerzo común de agentes públicos y privados, no será posible acometer la ingente tarea que tenemos por delante.

Vamos a seguir innovando en ámbitos como los nuevos modelos de cuidado y salud de las personas mayores; en los mecanismos para garantizar que toda la

ciudadanía tenga acceso a los recursos necesarios para una vida digna. Esta legislatura vamos a aprobar la nueva Ley de la Renta de Garantía de Ingresos.

Combatir la desigualdad social exige priorizar la lucha frente a la precariedad, la incertidumbre, la exclusión y, en su versión más extrema, la pobreza. En su dimensión sanitaria el virus afecta a toda la ciudadanía; pero en su dimensión social, el efecto es tan desigual como la propia sociedad.

Hoy Euskadi necesita abordar de manera urgente reformas, iniciativas y proyectos que ayuden a superar la crisis económica, generar empleo y retomar la senda que nos garantice el futuro.

Errealismo eta erantzukizun printzipioak gure gain hartuz aurre egingo diogu etapa berri honi.

Oso kontziente gara bizi dugun unearen dimentsio emozionalaz. Badakigu zer nolako zuzeneko ondorioak eragiten dizkien pandemiak pertsoneri, familiei eta komunitate-bizitzari.

Nire hitzaldian, Euskadiren erronkak zein diren azalduko dut, eta etorkizuna bermatuko duen proiektu kolektibo bati ekiteko beharraz mintzatuko naiz.

Proiektu horren dimentsio politikoa eskura dugun tresna nagusiaren bidez hezurmamitzen da: gure Autogobernua; Euskadiren erakundetzea ahalbidetu duen bide juridiko-politikoa.

Gure erakundeenganako konfiantzari eta Autogobernuaren kudeaketari esker, aurrerapen, ongizate eta justizia sozial handia lortu dugu.

Orain, bide hori eguneratu eta sakondu beharra daukagu, etorkizuneko erronka handiei aurre egiteko.

Erronka hauek aukera bihurtzeko Akordio sendo bat lortu dugu.

Pozik nago alde pertsonalean eta politikoan, zeren eta nire alderdiaren, Euzko Alderdi Jeltzalearen, eta Euskadiko Alderdi Sozialistaren babesarekin bainator legebiltzar honetara. Akordioaren eta lankidetzaren emaitza izan da babes hori.

Asko eskertzen dut eman didaten konfiantza.

Nire gain hartzen dut legegintzaldi honetarako gobernu-akordiotik sortutako ekimenen agenda abian jartzeko ardura.

Akordio hori defendatzen dut, gure herriaren garapenaren oinarria delako.

Aurreko legegintzaldiko esperientzia positiboaren eta beste erakundeetan egindako lan partekatua ondu da, hein batean.

Eusko Jaurlaritzaren egonkortasuna eta gaitasuna bermatzen dituen akordioa da.

Abiapuntua, alegia.

Gaur, ildo nagusiak aurkezten ditut; eskua zabalik, denon artean Euskadi batera eraikitzeko.

Legebiltzarreko alderdi politikoei, euskal erakundeei eta Estatuko Gobernuari zabalitzen diet eskua, baita lankidetzak publiko eta pribatuari ere. Eragile sozial, ekonomiko, laboral eta profesionalei, eta hezkuntza eta kultura eragileei ere zuzentzen natzaie.

Mano tendida a la colaboración.

El mejor proyecto posible para Euskadi es el que aglutine nuestra diversidad y pluralidad.

Si esta Cámara así lo ratifica, en unos días comenzaremos a trazar y plantear las políticas del futuro de Euskadi; conscientes de que es tiempo de dialogar, negociar y acordar.

Vivimos tiempos que requieren la máxima responsabilidad del Lehendakari y su equipo, de esta Cámara y sus representantes políticos. También del conjunto de la sociedad.

Tiempos que nos exigen diagnósticos ajustados a las nuevas realidades y un renovado impulso que se traduzca en programas, presupuestos, equipos y personas.

Tienen mi compromiso.

Espero contar con el de ustedes y el de la sociedad vasca en su conjunto.

## **PRIMERA PARTE: EL CONTEXTO DE LA COVID 19**

Hoy, nuestro primer y sincero recuerdo está con todas las personas fallecidas a lo largo de la pandemia del coronavirus. Con los familiares y personas allegadas que han sufrido y sufren la pérdida de sus seres queridos a quienes, en muchos casos, no han podido despedir como habrían deseado. Solo quienes lo han padecido saben lo desgarrador de un duelo en circunstancias tan extremas.

No olvidamos a las personas que aún hoy están padeciendo las graves secuelas de la infección por la Covid-19.

Quienes nos encontramos en esta Cámara hemos tenido experiencias y vivencias personales, más o menos cercanas, de esta tragedia. Las hemos sentido como propias.

El próximo 21 de septiembre compartiremos, aquí en Vitoria-Gasteiz, un acto de recuerdo y homenaje institucional a las más de 1.700 personas fallecidas.

Comparto el reconocimiento a quienes están ayudando, desde el primer día y en primera línea, a responder a la crisis de la Covid. Unos servicios esenciales profesionales y bien organizados. Representan nuestro Autogobierno y son garantía de bienestar de la sociedad vasca.

Expreso mi agradecimiento al conjunto de la sociedad, que ha sabido asumir y sobrellevar las dificultades del confinamiento. Una sociedad consciente y solidaria, que ha afrontado las dificultades y sigue contribuyendo, con tesón, a contener el virus.

El compromiso individual y colectivo van a seguir siendo claves para superar esta situación.

El civismo, la responsabilidad social, la disciplina pueden ayudarnos, lo van a hacer, a superar estos momentos tan complejos.

Ello supone asumir cada uno, cada persona, nuestra propia responsabilidad, sin buscar un chivo expiatorio contra el que descargar nuestra impotencia y nuestros miedos.

Califico esta visión como "realismo constructivo".

El "realismo constructivo" supone reconocer que las cosas no están bien y que exigirá mucho esfuerzo salir adelante. Supone que, pese al impacto emocional que conlleva vivir estos duros momentos, se impone la voluntad de creer en nuestra propia capacidad para sobreponernos y recuperar el pulso social.

Lehenengo egunetik ari gara pandemiaren aurka borrokatzen, hiru alderdi nagusi hauetan: lehenik, alderdi sanitarioan; bigarrenik, ekonomiaren eta enpleguaren krisian; eta, hirugarrenik, gizarte-kohesioan eta sektore ahulenak sufritzen ari diren ondorioetan.

Krisi latz honek ez du lekurik uzten demagogiarentzat. Argi definitzen eta mugatzen du zein den gure gain hartu beharreko lehentasunen agenda.

Bide luzea dugu egiteko, zeinari modu partekatu, koordinatu, solidario eta eraginkorrean heldu behar baitiogu.

Bizitza egokitu zaigun gizarte-testuinguru honetan, are garrantzi handiagoa hartzen dute pertsonak, familiak, lagunek eta gure ingurune hurbilenek.

Oraindik goiz da egoera ebaluatu eta aztertzeko.

Baina, argi dugu, konfiantza dela funtsezko balio bat gizarte osoarentzat.

Inoiz baino beharrezkoagoa da konfiantza, gizarte-bultzada agortu ez dadin eta krisiaren hiru alderdiak –sanitaria, ekonomikoa eta soziala– gainditzea lor dezagun.

Gakoa erraza da azaltzen; zailagoa, ordea, gauzatzen.

Funtsean, lankidetzako gobernantzaren eredia finkatzean datza; gardentasuna eta kudeaketa eraginkorra oinarri hartuta.

Ziurrenik, legegintzaldi honi Covid-19aren legegintzaldia esango zaio.

Aurreikusten dut pandemiaren aurkako borroka eta ekonomian eta enpleguan jasango diren ondorioek lau urte hauetan iraungo dutela.

Aurkezten dudan programak egoera horri erantzuten dio.

Askotan errepikatu dugu: txertoa eta tratamendu eraginkorra lortzen ez ditugun bitartean, birusarekin bizi beharko dugu. Horrek luze jo dezake. Horregatik, kontaktuak kontrolatu eta kutsaduraren hedapena eragotzi beharko dugu.

Bi irizpide nagusi azpimarratu nahi ditut: gure zerbitzu sanitarioaren kolapsoa saihestu behar dugu eta, aldi berean, herrialdearen koma ekonomikoa ekidin.

Batak zein besteak pertsonen bizitzarekin zerikusia dute; bateragarriak dira eta aldi berean babestu behar ditugu.

Azken finean, gaur egungo eta etorkizuneko bizitzek balio bera dute. Balio absolutua.

Badakigu koronabirusaren inpaktua jasango dugula gure bizimoduan; bai norbanako gisa, baita gizarte gisa ere. Ziurgabetasun sanitarioa onartu beharra daukagu eta, aldi berean, ohitura eta jokabide berriak bultzatu.

Horrek esan nahi du erantzukizunez onartu behar ditugula gure gizarte harremanetako mugak. Behin eta berriro gogorarazi behar dugu nahitaezkoa dela osasun-agintarien arauak betetzea: eskuak garbitu, maskara erabili eta pertsonen arteko distantzia gorde; besteak beste eta aldiro proposatu eta ezartzen direnak.



Denon erantzukizuna da: erakundeek aurreikusi, informatu eta gobernatu egin behar dute; eta, gutariko bakoitzak, dagokion erantzukizun indibiduala hartu behar du.

Erakundeek araututako murrizketak nahitaezkoak dira Covid-19aren hedapenaren aurkako borroka indartzeko.

Gizarteak, oro har, arduraz betetzen ditu konpromiso zibikoko neurri horiek.

Badakit neurri horietako batzuek kostuak eragin ditzaketela birusa transmititzeko arrisku handiagoa duten sektoreetan. Inpaktu hori arreta handiz aztertzen jarraituko dugu, zuzenketa eta konpentsazio-neurriak ezartzeko, betiere gure Autogobernua arduraz erabiliz eta Espainiako Gobernuak ezartzen dituen neurriak osatuz.

En este contexto, me detengo en una cuestión central de cara a los próximos meses: el arranque y desarrollo del curso académico 2020-2021.

La Educación es un pilar básico para el progreso y la equidad social. Una prioridad.

La pandemia golpea a todos los sectores y actividades sociales, también al ámbito educativo.

Lo hemos padecido durante el último cuatrimestre del curso pasado.

Un gran esfuerzo de toda la comunidad educativa permitió afrontar el reto de la "no presencialidad obligada" con un despliegue de educación on-line utilizando los recursos disponibles y creando interacciones didácticas inéditas.

De cara a la preparación de este curso hemos trabajado con tres criterios: Previsión, Coordinación y Adaptación.

-Previsión. A finales de junio, el Gobierno Vasco definió y compartió un protocolo de actuación que contemplaba tres escenarios para el inicio de curso.

-Coordinación. Este documento, junto al elaborado por el servicio de prevención de riesgos laborales del Departamento, fue remitido a todos los centros educativos. Se mantuvieron 23 reuniones de trabajo con la comunidad educativa. Sobre esta base, cada centro, atendiendo a sus propias características, ha ido elaborando su Plan de contingencia para iniciar el curso. Este es el punto de partida.

-Adaptación. El escenario sigue siendo cambiante. Por este motivo, la pasada semana hemos procedido a adaptar el protocolo de junio a la realidad de finales de agosto. En base a este criterio de adaptación, el inicio de curso se desarrollará de forma escalonada.

El lunes 7 de septiembre: Infantil, Primaria, primero y segundo de ESO. Una semana más tarde, el 15 de septiembre, tercero y cuarto de ESO y Bachillerato. En Formación Profesional el comienzo se prevé a partir del día 14 y de manera progresiva a lo largo de septiembre.

Salud y Educación son, y deben ser, compatibles.

La apuesta del Gobierno Vasco, en colaboración con la comunidad educativa, es el denominado "escenario uno", esto es, la educación presencial en todos los niveles educativos.

Esta es la mejor garantía para una educación de calidad y en condiciones de igualdad.

La educación presencial es compensatoria. Contribuye a corregir la desigualdad del alumnado más vulnerable, o con dificultades académicas, sociales, digitales o familiares.

El protocolo de actuación para este "escenario uno" incluye todas las medidas orientadas a garantizar las condiciones preventivas de higiene, distancia, consolidación de grupos estables de interacción, aforo máximo de alumnado por aula en cada etapa y uso de la mascarilla.

Oinarri hau hartuta, ikasturtea hasteko hiru irizpide nagusi hauek nabarmendu nahi ditut:

-Bat. Osasun Sailaren jarraipena eta ebaluazioa.

Hezkuntza presentziala da lehenetsi den aukera. Hori izango da, beraz, apustu nagusia, baina betiere osasun-agintariek epidemiaren eboluzioari buruz egingo duten azterketaren mende egongo da. Hezkuntza Sailaren eta Osasun Sailaren arteko koordinazioa estua eta etengabea da, eta hala izango da aurrerantzean ere. Ikastetxe bakoitzak erreferentziazko Erakunde Sanitario Integratu bat izango du.

-Bi. Giza taldea handitzea eta hezkuntzarako espazioak ugaritzea.

Hezkuntza Sailak 1.000 irakasle kontratatzea aurreikusten du, errefortzu handiena behar duten ikastetxeentzat.

Era berean, hezkuntzarako espazio gehiago erabiltzeko modua antolatu da, distantziak kasu guztietan bermatu ahal izateko. Horri dagokionez, Hezkuntza Saila EUDELein eta Udalekin koordinatuta lan egiten ari da.

-Hiru. Neurri puntualak edo kirurgikoak hartzea.

Aukera presentziala malgutasunez aplikatuko da. Osasun-arrazoiengatik edo kontaktuak eta kutsadurak bakartzeko premiarengatik beharrezkoa denean, neurri murriztaile puntualak ezarri ahal izango dira.

Ikasturte-hasiera ez da erraza izango, zeren eta baldintzak berak ez baitira errazak.

Nolanahi ere, ikastetxeekin etengabe egongo gara harremanetan, egoeraren jarraipena egiteko, gure jarduera une oro ebaluatzeko eta une bakoitzean beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

Hezkuntza eremu estrategikoa da gizartearentzat. Eta, aldi berean, ondo dakigunez, oso sentikorra pandemiaren ondorioekiko.

Aurreikusita dauden neurri guztiez gain, etorkizunean beste hainbat onartuko dira. Kasu guztietan ezinbestekoa izango da talde-lanerako eta lankidetzarako jarrera izatea.

Covid-19ak planteatzen digun erronkari aurre egite aldera, Jaurilaritza hezkuntza-komunitatearekin lankidetzan arituko da. Hori da erronka gainditzeko bide bakarra.

Nos corresponde afrontar con éxito el reto de consolidar un servicio educativo universal de calidad. Avanzar en la excelencia a partir de su modernización, clave para la cohesión social.

Defiendo con claridad el sistema y el modelo educativo vasco.

Es una prioridad del País, es una prioridad del Gobierno Vasco.

Esta legislatura aprobaremos una Ley Vasca de Educación.

Tomará en consideración el acuerdo alcanzado la pasada legislatura, poniendo especial énfasis en la equidad y la excelencia. Se orientará a modernizar el sistema educativo vasco, avanzar en el plurilingüismo, garantizar la igualdad de oportunidades, revisar la financiación del sistema educativo y aumentar la autonomía de los centros.

Como he dicho con anterioridad, vivimos un momento excepcional. Es cierto que la lucha contra la Covid lo ocupa prácticamente todo. Ahora bien, el Programa de Gobierno ni puede ni debe ser monográfico.

Vamos a seguir impulsando todos los objetivos de País.

La pandemia no ha anulado esos objetivos que son, ahora, incluso más necesarios que antes. Objetivos estratégicos en los distintos ámbitos económicos, sanitarios, educativos, industriales, energéticos, sociales o culturales.

En estas circunstancias y con esta orientación iniciamos una nueva etapa.

## **SEGUNDA PARTE: UN NUEVO ESCENARIO PARA UNA NUEVA ETAPA.**

Reitero mi agradecimiento al Partido Nacionalista Vasco y al Partido Socialista por el trabajo realizado para consensuar este Acuerdo desde una visión compartida del futuro de Euskadi.

Emprendemos juntos un camino al que debemos sumar nuevas voluntades.

En nuestra trayectoria de Gobierno la colaboración ha sido fruto tanto de la convicción como de la necesidad. Ahora, cuando contamos con una mayoría más asentada, el espíritu va a ser el mismo; la convicción, mayor.

Presentamos un Acuerdo para el futuro de Euskadi abierto a todas las aportaciones y contribuciones. También a las críticas constructivas, como desearía que fueran las que se formulen en este Debate de Investidura. El momento que vivimos así lo reclama.

La dimensión de los retos y objetivos que planteamos demanda extender la cultura del acuerdo y la colaboración. El "auzolana" de País tiene más sentido que nunca.

Lo vivido durante los últimos meses va a marcar el futuro de los próximos años. Esto nos permite analizar las claves del momento actual:

-Uno. La importancia de las instituciones y las políticas públicas.

En un tiempo en el que determinado populismo estaba avanzando y transmitiendo una idea de banalidad en el ejercicio de la responsabilidad institucional, se ha hecho más patente que nunca la importancia de las políticas públicas y la acción de las instituciones.

Han cobrado un nuevo valor el conocimiento y la ciencia, la necesidad de garantizar a la sociedad elementos esenciales como la salud, la educación, el apoyo a las personas más vulnerables o la seguridad.

-Dos. La experiencia de la vulnerabilidad social y económica extrema.

La Covid ha traído la crisis social y económica más grave de las últimas décadas. Ha provocado la destrucción de parte de nuestra economía y de miles de empleos, mostrando la vulnerabilidad de muchas familias y personas.

Algunas de las dificultades ya las hemos padecido y superado en situaciones anteriores, pero la profundidad de esta crisis nos obliga a ir más rápido y mejor a la hora de proteger lo común y avanzar en la igualdad.

-Tres. Re-equilibrio entre lo global y lo local.

Vamos a seguir viviendo en un mundo interconectado y global. Pero hemos apreciado la importancia de lo cercano, lo próximo. La importancia de contar con capacidades propias y un tejido social y económico local fuerte.

Hemos comprobado el valor de contar con un hábitat más saludable, con "ciudades 15 minutos", de tamaño medio, con viviendas que garanticen las condiciones de vida familiar.

Ha cobrado más valor la protección de la biodiversidad con espacios verdes y una movilidad sostenible.

-Cuatro. Europa es nuestro proyecto.

El ambiente de tensión internacional era previo a la pandemia, pero se ha intensificado con ella. Hay una pugna geo-económica y política global. Europa no se puede quedar al margen. Hay quien considera que Europa debería haber ido más lejos.

En todo caso, hay que reconocer que la Unión ha entendido la importancia del momento, la necesidad de un impulso económico y social. Por eso promueve ejes fundamentales para nuestro futuro como la sostenibilidad y la transición energética, la ciencia y la investigación, la tecnología y la digitalización.

-Cinco. Reactivar el tejido económico y empresarial es una necesidad porque el empleo vuelve a ser la prioridad social.

Las consecuencias económicas de esta crisis son tremendas, no solo por la caída de actividad que obliga al reajuste permanente de todas las previsiones, sino por su impacto en el empleo. La destrucción de negocios, empresas o actividades profesionales es muy fuerte.

Estamos sumidos en una crisis económica sistémica con un alto impacto en ámbitos como el comercio urbano, la hostelería, la cultura o el ocio; con gran

afección en sectores clave para nuestro País como la automoción, aeronáutica o bienes de equipo.

La creación de empleo vuelve a ser nuestro objetivo fundamental. Por ello tenemos que sostener a nuestras empresas y hacer una apuesta por el futuro de la industria y los servicios avanzados como médula espinal de nuestro sistema productivo.

-Sei. Zientzia, Ezagutza, Ikerketa, Teknologia eta Berrikuntza funtsezkoak bilakatu dira gure gizartearentzat.

Alde batetik, ikerketak historian inoiz egin den proiektu handiena martxan jarri du Covid-aren aurkako txertoa aurkitzeko. Bestetik, herrialde aurreratuenak ikerketa eta garapenaren aldeko apustu estrategikoa egiten ari dira.

Euskadik apustu hori lehentasun gisa hartzen jarraitu behar du, inoiz baino ahalegin handiagoa eginez.

Azpimarratu nahi dut bat gatozela Europar Batasunak egin duen gogoetarekin: digitalizazioa bultzatu beharra dago, gizarte integratuen balioen arabera.

-Zazpi. Jasangarritasunak eta Berdintasunak gorantz doazen helburuak izaten jarraitzen dute.

Euskadi erreferente izan behar du Jasangarritasunean, klima-aldaketaren eta trantsizio energetikoaren aldeko bidean.

Erreferente, baita ere, berdintasunean, genero-indarkeriaren aurkako borrokan, justizia sozialean, arrazakeriaren aurkako borrokan, migrazioei eta errefuxiatuei eman beharreko erantzunean. Orobat, azken hamarkadetan jorratutako bideari jarraituz, garapenerako nazioarteko lankidetzan ere erreferente izan behar du Euskadik.

Euskadiren borondate hori bat dator "Europa 2020" estrategiarekin, bai eta Nazio Batuen 2030 Agendan jasota dauden garapen jasangarriaren aldeko helburuekin ere.

-Zortzi. Gazteria eta zahartze aktiboa.

Beste behin, gazteen belaunaldi batek ikusten du nola krisiak bere etorkizun-itxaropenak baldintzatzen dituen. Gure herriak kurba demografikoa iraultzea lortu behar du. Adinekoak izan dira kaltetuenak krisi honetan, haien giza kostua oso handia izan baita.

Belaunaldien arteko itun bat proposatzen dugu, adinekoen beharizanei erantzuteaz gain, gazteei etorkizunerako aukerak emango dizkieten politikak artikulatuko dituen.

Pentsioak, gizarte-zerbitzuak, familia-politikak eta emantzipazio-planak dira belaunaldien arteko itun horren osagai.

-Bederatzi. Eraginkortasuna eta administrazio publiko berria.

Erakunde publikoen ahalmen fiskalean inpaktu handia izango duten uneei aurre egin beharko diegu berriro. Gure konpromisoa bete, eta azken erreforma fiskalaren emaitzak ebaluatuko ditugu, hala hitzeman baikenuen.

Europa konturatu da zorpetzeko unea dela. Euskadin ere hala egingo dugu, zorrotasunez eta erantzukizunez, betiko moduan, herriaren etorkizunean pentsatuz.

Honekin batera, Administrazioaren eraginkortasuna eta kudeaketa publikoa hobetzea lehentasunak izango dira.

-Hamar. Autogobernua indartzea Euskadiren etorkizunaren oinarri gisa, eta lankidetzako gobernantza sistema berri baten beharra.

Azken hilabeteotan agerian geratu da oso garrantzitsua dela euskal erakunde sistemak gaitasuna izatea. Egiaztatu da koordinazio- eta subsidiarotasun-printzipioak bermatuko dituen gobernantza-sistema berri bat behar dugula.

Krisiak erakunde estrategiak partekatzen lagundu du eta laguntzen jarraitu behar du. Koordinaziorako eta lankidetzarako bidea jorratzen hasi gara. Ildo beretik jarraitu behar dugu, foru-aldundiekin eta udalekin ditugun harremanak indartuz.



Hori funtsezko konpromisoa da etapa berrian: elkarrekin lan egin behar dugu, "guztioak bat", bizi dugun ziurgabetasun-egoerak erakundeen arteko koordinazioa muturreraino eramatera behartzen baikaitu. Gobernu berriaren lehentasuna izango da hori.

Gure proiektu politikoa elkarriketa eta erakundeen arteko lankidetzan oinarrituta dago. Halakoa da hastear dagoen legegintzaldiaren testuingurua.

### **HIRUGARREN ZATIA: JAURLARITZAREN PROGRAMA ETA HELBURUAK.**

Gure programa Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat egiten du eta lau ataletan egituratuta dago:

-Bat: Premiazkoa dena: Oparotasuna. Enpleguarekiko konpromisoa eta Ekonomia suspertzea.

Lehentasuna enplegua da. Galdutako enplegu guztiak berreskuratzea.

Apustua egiten dugu industria aurreratuenaren alde, eragile ekonomiko gisa. Baita berrikuntzaren alde, etorkizuneko lehiakortasunaren giltzarri gisa.

Inbertsioak egiten jarraituko dugu, azpiegiturak modernizatzeko eta garraio jasangarria bultzatzeko.

Gure lehentasunen artean sartzen ditugu, halaber, lehen sektorea, elikadura-politika eta landa-garapena. Baita turismo jasangarria ere. Honekin batera, bizi dugun egoeran, kulturaren, merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreak suspertzea lehentasun bat da.

-Bi: Garrantzitsua dena: Pertsonak. Osasuna, zerbitzu publikoak eta gizarte-politikak bermatzeko konpromisoa.

Osasun publikoa indartuko dugu, Covid-aren krisiari aurre egiteko bermerik onena delako.

Apustua egiten dugu hezkuntza-sistema bidezkoago eta kalitate handiagokoa sendotzen jarraitzearen alde. Inbertsioak egingo ditugu euskal hezkuntza-sistema osoaren digitalizazio integralaren bidean.

Gure lehentasuna da gizarte-politikak bermatzea eta haien kalitatea finkatzea. Sistema soziosanitarioan inbertitzea, inor atzean gera ez dadin eta euskal gizartearen garapen harmonikoa bermatzeko.

Etxebizitza-politika berri bat bultzatuko dugu, batez ere alokairuan oinarritua.

Honekin batera, lehenetsiko ditugu adinekoei, familiei, haurrei eta migrazioari zuzendutako ekimenak.

Kultura, euskara eta kirola bultzatuko ditugu. Izan ere, munduan zehar euskal nortasunaren ezaugarriak ere badira.

Ondo ezagutzen ditugu kultura sortzaileak bizitzen ari diren zailtasunak. Alde batetik, laguntzak bideratuko ditugu. Bestetik, kultura eta sormen industria berriak bultzatzen jarraituko dugu.

